

## **DIRU SARRERAK**

Hasierako ideia izan genuenetik proiektua martxan jarri arte, 3 urte igaro dira, lan egiten eta dirua aurrezten ibili gara hiru ekintzaileak. Behin diru nahikoa lortuta, gure **aurrezki** guztiak inbertitu genituen gure proiektuan martxan jartzeko beharrezko hasierako inbertsioan.

Asko kostatu zitzaigun erabaki hori hartzea, hiru urteko lana eta dirua galtzeko arriskua genuelako. Diru honekin, enpresa eratu eta kapital soziala eratu dugu.

Gazte ekintzaileak garenez, gure proposamena aurrera eramateko gure herriko Behargintza zerbitzuarekin jarri ginen harremanetan. Haiekin enpresa sortzen laguntzeko bilera batzuk egin ondoren, **diru laguntza** bat jasotzeko aurkeztu genuen proiektua. Jakinarazi zigutenaren arabera aurkeztu denetik hilabete batzuk pasa behar dira laguntza kobratzeko, beraz diru kantitate hori ez dugu kontuan izan hasierako inbertsioa finantzatzeko. Diru horren sarrera dugunean, aurrera jarraitzeko motibazio bezala erabiliko dugu, gure produktuaren berrikuntzan inbertitu ahal izateko.

Produktua merkatura atera bezain laster, **salmenta** aurreikuspen onak ditugu eta arrakasta handia izango duela aurreikusi dugu, beraz proiektuaren errentagarritasuna lortuko dugu salmentei esker.

Gure erloju propioarekin lortuko ditugun sarreraz gain, Casiorekin eta Applerekin sinatutako hitzarmenen bitartez **aparteko diru sarrerak** aurreikusten ditugu. Aliantza hauei esker produktuaren salmentak igoko dira, marka ospetsuak direlako eta beraien bezeroei gure sistema aurkeztuz eta beraien produktuetan gure sistema integratuz konfiantzazkoa eta kalitatezkoa dela bermatuko baitiete, gure bezero kopurua handituz.

Gainera, hazkunde hau aprobetxatuz hainbat marka gurekin lan egiteko proposamenak egingo dizkigutela aurreikusten dugu, bidea zabalduz merkatuan.

